

#UDAROCK

ROCK UDALEKUAK OROZKON 2020

PRENTSA-OHARRA

Aurten, bizi dugun egoera ikusita, **Bilboko Muzzik eskolatik**, aurreko edizioetako **UdaRock udalekuak berreskuratzea erabaki dugu** JBP Ekoizpenak lagunekin batera; **baina berezitasun handi batekin, Oroskon izango baita**, naturaz baliatuz ekintza guztiak kanpoak egin ahal izateko. Gure ustez, murgilduta gauden egoera honek zaintza eta libre sentitzea eta arnasa hartzeko espazio seguruak behar ditu. UdaRock hau berezia izango da, giltzapetuta eta bizitzaz betetzen gaituzten jarduerak garatzeko aukera askorik gabe sentitu ondoren, funtsezko unea da inguratzen gaituen natura, espazio zabala, aire garbia, bizitzako funtsezko gauzak, musika, artea, konpainia, animaliak... ospatzeko.

Aste betez musikaz eta naturaz gozatzeko egitasmoa da, **7 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoekin** (malgua). Xixo Yantani eta Eriz Perez irakasleek gidatuko dute irakaskuntza proiektua, Muzzi-keko irakasle-taldearekin eta beste artista plastiko batzuekin batera. Musikarekin, perkusioarekin, artearekin eta naturarekin lotutako jarduerak egingo dira.

Besteak beste, perkusioarekin, kitarrarekin, pianoarekin eta ahotsarekin lotutako klaseak jaso eta musikarekin eta naturarekin lotutako aisialdi jarduerak egingo ditugu.

Aisialdi jarduera eta irteeretan **Oroskon kokatuta dagoen Olabarri-Andikoa auzoa** eta bere inguru eta txoko ederrak ezagutzeko aukera izango dugu.

Hiru txandetan izena emateko aukera egongo da:

- Ekainaren 29tik uztailaren 3ra
- Uztailaren 6tik uztailaren 10era
- Uztailaren 13tik uztailaren 17ra

Segurtasun neurri bereziak hartuko ditugu (Covid19):

- Talde murriztuak: talde bakoitzean 15 pertsona baino ez dira egongo, eta 5eko taldeetan banatuko dira.
- Tenperatura hartzea: egun bakoitzaren hasieran tenperatura hartuko dugu.
- Distantzia: une oro, baita talde-jardueretan ere, 2 metroko segurtasun-tartea mantenduko dugu.
- Maskarak eta gel hidroalkoholikoa: maskarak banatuko ditugu, eta eskuak gelarekin desinfektatu beharko dira.
- Espazioa desinfektatzea: taldez aldatzen den bakoitzean, espazio bakoitza desinfektatuko da.
- Erantzukizunpeko adierazpena: parte-hartzaile bakoitzaren gurasoek adierazpen bat sinatu beharko dute, beren seme-alabek azken 15 egunetan COVID19rekin lotutako sintomarik izan ez dutela adierazteko.

Ordutegia:

10:00 - 14:00

Izena emateko **labur.eus/udarock2020** helbidean formularioa bete eta zalantzaren bat izan ezker, idatzi **udarock2020@ni.eus** helbidera eta berehala jarriko gara harremanetan.

#UDAROCK2020